



Arartekoaren 2015R-2640-13 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 19koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatu zaio efekturik gabe utz dezala Gizarteratzeko Zerbitzuaren Harrera Programen eta Baliabideen buru izateko lanpostua, zerbitzuen batzordean, iragankorki estaltzeko deialdiaren emaitza, eta deialdi berria abiarazi dezala aipatu lanpostua estaltzeko.

Aurrekariak

1.-Erakunde honetara jo zuten Gasteizko Udaleko karrerako bi funtzionarioik, antolakuntza arrazoiengatik Gizarteratzeko Zerbitzuaren Harrera Programen eta Baliabideen buru izateko lanpostua, zerbitzuen batzordean, iragankorki estaltzeko deialditik kanpo uztearekin zuten desadostasuna adieraztera. Udal horrek egin zuen deialdia, 2013ko uztailean.

Interesdunek ziurtatu dutenez, Euskal Funtzio Publikoaren Legean, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuen horniketarako araudian eta Gasteizko Udaleko zerbitzuen batzordeen protokoloan ez da aurreikusi arrazoi horrengatik, zerbitzuen batzordeen irudiaren bidez, funtzionario bat lanpostu bat estaltzeko deialditik kanpo uzteko aukera. Deialdiaren oinarrietan ere ez zela zirkunstantzia hori aurreikusten gaineratu zuten.

Kexa-espedientean dagoen dokumentazioaren artean, interesdunak prozesutik kanpo uzteko jakinarazpenaren kopia dago, sailaren buruak egindakoa. Prozesu horri atxikita zegoen deitutako lanpostua. Bestetik, horietako batek bazterketa horren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioari eman zaion erantzunaren kopia ere ageri da aipatu dokumentazioan.

Lehenengo dokumentuan, laburtuz, antolakuntza arrazoiengatik baztertu dituztela adierazi da; funtsean, interesdunek beste lanpostu baten esleipen gertatu berri batetik jo baitute deialdira. Lanpostu hori ere zerbitzuen batzordekoa da, eta beharrezkoa eta atzerazina da horren estaldura. Gaineratu denez, zerbitzuen batzordean lanpostu berri bat esleitzeak, beste lanpostu batek betetzen duen xederako, era berean, aldi baterako dena eta berriki izendatutakoa, ez du plantillaren antolakuntza urritasuna konpontzen; hau da, beste zerbitzu edo administrazio unitate batean baino ez du birkokatzen langilea.

Beste alde batetik, gora jotzeko errekurtsioaren ebazpenean onartu egin da udalak zerbitzuen batzordea erregulatzeko baliatu zuen protokoloan ez dela aurreikusi prozedura horietako batean aurretiko zerbitzuen batzorde batetik parte hartzeko ezintasuna. Hala ere, zerbitzuaren beharrianetan oinarritu da bazterketa:

“Así pues, aún cuando la desaparición, en el Protocolo de comisiones de servicios, del requisito consistente en no tener asignada una comisión de servicios, para participar en una convocatoria de ese tipo pueda





interpretarse en el sentido de que ser titular de una de ellas no debe obstar para la participación, dicha circunstancia pierde su virtualidad en favor del concepto superior de "las necesidades del servicio", que, si bien, no pueden suponer carta blanca para hacer y deshacer al antojo de la persona responsable de un servicio, pueden y deben ser invocadas a fin de lograr la optimización de los recursos y la prestación eficaz y eficiente del servicio público que tenga asignado".

- 2.-Kexak bideratzea onartuta, udalera jo genuen, azaldutako kontuaren gainean informa gintzan. Bestetik, prozesua erregulatzeko araudiaren kopia ere eskatu genuen. Gure eskaerari erantzunez, udaleko Gizarte Gaietako eta Adinekoen Sailaren zuzendariak idazki bat igorri zigun. Idazki horren bidez, berretsi egin zuen interesdunen bertsioa. Bestalde, probatik kanpo uzteko jakinarazpenaren kopia bidali zigun, kexagileei bidali zitzaiena, eta gora jotzeko errekurtsuaren kopia helarazi. Hau da, jada aipatu ditugun dokumentuak.
- 3.-Udalak zalantzan jarri den prozesua erregulatzen duen barne araudia, hots, zerbitzuen batzordearen protokoloa, bidali ez digula egiaztatu ondoren, eskatu egin genuen. Duela gutxi bidali digute, zentzu horretan egindako telefono bidezko errekerimendu baten ostean.

Gogoetak

- 1.-Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54.1. artikulua eta euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuen horniketarako araudia onartu duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 47. artikulua aurrekusi duten bezala, salbuespenezko kasuetan eta euren lanpostua erreserbatuta, funtzionarioei euren taldeko edo eskalako lanpostuak betetzea esleitu ahal izango zaie zerbitzuen batzordean; bai eta esleituta duten lanpostuaren berriazko funtzioak ez direnak betetzea ere.

Hutsik dauden lanpostuak iragankorki hornitzeko formula da hori, eta administrazio bakoitzari dagokio horiek esleitzeko prozedura zehaztea.

- 2.-Gasteizko Udalean, Gasteizko Udalaren Funtzio Publikoaren Eremuaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko ekainaren 13ko ebazpenak erregulatu du prozedura. Ebazpen horren bidez onartu da zerbitzuen batzordearen barne protokoloa udalean.

Administrazio erakundearen eremuan bertan kokatzen den administrazio jarduera da, eta ordenamendu juridikoaren arabera udalari gai horietan dagokion zuhertasun eremua mugatzen du. Jardueraren xedea zerbitzuen batzordeen esleipenetan jarraitu beharreko prozedura zehaztea da.

Aholkularitza juridikoak eta udaleko ordezkari sindikalek egindako ekarpenak txertatu ondoren, azalpen zatian adierazi da zerbitzuen batzordeen irudiaren izaerari eta filosofiari erantzuten dion prozedura diseinatu dela, eta horren





xedea, funtzionaltasun arrazoiengatik, plaza hutsak aldi baterako bizkortasunez estaltzea ahalbidetuko duen mekanismoa hornitzea dela, titularra edo arauzko estaldura sartu artean.

Hautapen prozedurazko deialdia duen borondatezko zerbitzuen batzordea denez, protokoloak ezarri du honakoak direla izangaiek bete beharreko betekizunak:

- Gasteizko Udalean karrerako funtzionario gisa zerbitzu aktiboan egotea, eta berehala hasteko prestasuna edukitzea, lanaldiaren % 100ean.
- Lanpostuen zerrendan, estali beharreko lanposturako adierazitako betekizunak betetzea:
 - Titulazio akademikoa.
 - Taldea.
 - Eskala edo azpi-eskala.
 - Hizkuntz gaitasuna (epemugaturako derrigortasun-data dagonean).

Transkribatutako xedapenaren irakurketatik ondorioztatu dugu betekizun horiek betetzen dituzten interesdun funtzionario guztiek dutela, hasiera batean, prozesuan parte hartzeko eskubidea. Baita, kexagileek arrazoitu duten bezala, parte-hartzeko betekizunen artean ez dela zerbitzuen beste batzorde batean ez egoteko betekizuna ageri ere.

Kexa-espedientean dagoen dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu dugu esku artean dugun deialdian eskatutako betekizunek bat egiten dutela aurreikuspen horrekin, eta bertan ere ez dela zerbitzuen beste batzorde batean ez egoteko betekizuna ageri.

Egia da beste herri-administrazio batzuek aurreikusi egin dutela bazterketarako arrazoi hori. Adibide gisa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren maiatzaren 30eko aginduaren 6.b) artikulua dago. Euskal Autonomia Erkidegoko eta horren Organismo Autonomoetako lanpostuak zerbitzuen batzordean hornitzeko prozedura erregulatu du agindu horrek, eta prozedura horietan parte hartzeko betekizun gisa ezarri du deialdia argitaratzeko dataren aurreko urtebeteko epean zerbitzuen batzordean izendapenik jaso ez izana.

Gainera, bai tokiko erakundeak igorritako informaziotik, bai erakunde honetara jo duten pertsonen emandakotik, Gasteizko Udalaren aurreko barne protokoloan ere betekizun hori ageri zela ondorioztatu dugu. Hala ere, adierazi dugun bezala, deialdiaren unean indarrean zen protokoloan ez da horrelakorik ageri, eta horri egokitu behar zaizkio deialdiaren oinarriak.

Antolaketarako arazoa ulertzen badugu ere, hau da, zenbaitetan, sistema beraren bidez berriki beste lanpostu bat esleitu dioten pertsona batek lanpostu bat iragankorki estaltzeak eragin dezakeen arazoa, aldi berean, ordezkatu egin behar dena, egiazki, erakunde honen ustez, pertsona bat prozesutik kanpo





arrazoi horrengatik utzi ahal izateko, araudi aplikagarrian egon beharko litzateke aukera hori aztertuta.

- 3.-Beste alde batetik, interesdunetako batek jarritako gora jotzeko errekurtsuaren ebazpenak zerbitzuaren beharrianetan oinarritu du prozesutik baztertzeko arrazoia.

Kontzeptu juridiko zehaztugabea da zerbitzuaren beharrianak kontzeptua, legegilearen borondatez sortutako formulazio lauso eta zabala, eta berau aplikatzen duenak eman beharko dio eduki zehatza, kasu bakoitzaren zirkunstantziei aplikatuz; hau da, bere enuntziatu orokorrarekin bat egingo duten alderdi objektibo eta subjektiboen zirkunstantziei aplikatuz kontzeptua.

Hots, administrazioak ezin ditzake zerbitzuaren beharrianak besterik gabe aipatu jardunbide jakin baten aitzakia edo justifikazio gisa. Administrazioak zerbitzuaren beharrianetan oinarritu dezan jardunbide jakin bat, beharrezkoa da legegileak araudi erregulatzailean aurreikusi izana aukera hori. Eta ez kasu horretan, ezta barne protokoloan ez eta deialdiaren oinarrietan ere, ez dute kontzeptu hori aipatu.

- 4.-Sobera jakina da espainiar konstituzioaren 23. artikulua xedatu duela herritarrek funtzio eta kargu publikoetan baldintza beretan sartzeko eskubidea dutela, legeek adierazitako betekizunekin. Horrela, oinarritzko eskubide bat zehaztu da, eta 103. artikuluan aipatutako merezimenduak eta gaitasunak marko horren baitan gidatu behar dira. Hau da, funtzio publikora baldintza beretan sartzeko oinarritzko eskubidea eratu da; horrenbestez, ezin da inolako izangairekin bereizkeriaz jokatu, ez eta bestelako trataturik eman ere, horretarako arrazoi objektiboak eta arrazoizkoak egon ezean.

Era berean, funtzio publikorako sarbidea gidatzen duten merezimendu eta gaitasun printzipioei dagokienez, Konstituzio Auzitegiak adierazi du printzipio horiek ez dutela funtzio publikorako sarbidearen unean bakarrik balio, funtzionaltasun harremanean ere balio baitute. Hortaz, aplikagarri zaizkie lanpostuak hornitzeko alderdiei.

Azaldutako testuinguruan, gure ustez, kexagileak lanpostu baten estaldura iragankorrerako prozeduratik kanpo uzteak gainerako izangaiei zirkunstantzia beretan eman zaien bestelako tratua ematea dakar, udalak horretarako ahalmenik eduki gabe, bai eta aipatu printzipioak urratzea ere. Beraz, gure esku-hartzea amaitutzat jotzea erabaki dugu, eta honakoa da gure

GOMENDIOA

Gasteizko Udalak efekturik gabe utz dezala, zerbitzuen batzordean, Gizarteratzeko Zerbitzuaren Harrera Programen eta Baliabideen buru izateko lanpostua iragankorki estaltzeko deialdiaren emaitza, eta deialdi berria abiarazi dezala aipatu lanpostua estaltzeko.

